



ZIZURKILGO UDALA

## FUTBOL ZELAIAREN ERABERRITZE OBRETAKO LEHIAKETARA AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEN BALORAZIOA

### Aurrekariak

2014ko uztailaren 10ean Zizurkilgo Udalbatzak Futbol Zelaia Eraberritzeko Proiektua gauzatzeko kontratu esleitzeko baldintzen plegua onartu zuen.

Plegu honen arabera, prozedura negoziatuaren bitartez esleituko da kontratua.

2014ko uztailaren 29an amaitu zen proposamenak aurkezteko epea eta 2014ko uztailaren 30ean ireki ziren plikak.

Guztira 9 proposamen jaso dira eta guztiak izan dira onartuak.

### Txostena

Ondoren atxikitako koadroan laburbiltzen da proposamenen balorazioa.

#### 1. Eskaintza ekonomikoa: 60 puntu

Esleipena baldintzatzen duen pleguaren baitan, bederatzi proposamen ekonomikoetatik bik beherapen desproporzionatua edo anormala egin dute. Hain zuzen ere, batz besteko beherapena %13,36koa izanik, %23,36ko beherapena gainditu dute MORGA-k (%27,27) eta ITALGREEN-ek (%26,32).

Hala ere, baldintza pleguan zehaztutako gainerako alderdiak puntuatu ondoren, ikusirik bi proposamen hauek ez direla hiru lehenen artean geratu, ez da beharrezkoa ikusi azalpenik eskatzea.

#### 2. Berme-epea, baldintzak eta beharrezko mantentze lanak: 30 puntu

Atal honi dagokionez, pleguak, berak, zehazten dituen baldintzetan eginiko eskaintzei bakarrik eman zaizkie puntuak. Hau da, kostu gehigarririk gabe berme epea indarrean mantentzeko beharrezko diren mantentze lan guztiak eskeintzen dituenari bakarrik. Ez da punturik eman, berme epea, erabilera desegokia edo aurreikusi ezin daitekeen ezinbesteko kausez gain, bestelako gaiengatik eraginda suertatu den kasuetan.

Honela, ez dute punturik lortu atal honetan ondorengo enpresek:

- ITALGREEN: Eskaintzaren arabera bermeak belar artifiziala osatzen duten 4 elementu babesten ditu, jolas zorua osorik babestu behar lukeenean. Bermea mantentze lan egokietara baldintzatzen dute eta honek ez du zentzurik mantentze lan horiek



## ZIZURKILGO UDALA

eskeintzaren barruan dauden heinean. Soilik fabrikazio akatsak bermatzen ditu eta ez instalazio akatsak.

- CAMPEZO + OPSA: Berme epearen eskaintzak ez du baldintza pleguan zehaztutakoa betetzen. Izan ere, epe hau baldintza klimatikoen arabera murriztea aurreikusten baitute.

- MONDO: Berme epearen eskaintzak ez du baldintza pleguan zehaztutakoa betetzen. Izan ere, ez dira barne sartzen beharrezko lan guztiak. Adibidez, ez da barne sartzen, behar izanez gero, betelanak gehitzea (area eta kautxoa).

Gainerako proposamenak, eskaintako berme epearen arabera puntuatu dira.

### 3. Kalitate kontrolerako programa: 10 puntu

Atal honi dagokionez, pleguak, berak, zehazten dituen baldintzetan eginiko eskaintzei bakarrik eman zaizkie puntuak. Hau da, kalitate kontrolerako programa, prezio unitario bakoitza baloratuz eta proiektuko baldintza teknikoaren arabera aurkeztu dutenei. Beti ere, bere zenbatekoa eskeinitako gauzatze materialaren zenbatekoaren %2 baino txikiagoa izanik eta zehazki aitortuz ez dela zuzenean abonatu, proiektuko unitate guztietan zeharreko kostu modura kontuan izana dagoelako.

Honela, ez dute punturik lortu atal honetan ondorengo enpresek:

-MORGA: ez du aurkeztu kalitate kontrolerako plegua prezio unitarioak baloratuz pleguan eskatzen den moduan.

- ITALGREEN: ez du aurkeztu kalitate kontrolerako plegua prezio unitarioak baloratuz pleguan eskatzen den moduan.

- GOITU: ez du aurkeztu kalitate kontrolerako plegua prezio unitarioak baloratuz pleguan eskatzen den moduan.

- MONDO: ez du aurkeztu kalitate kontrolerako plegua prezio unitarioak baloratuz pleguan eskatzen den moduan.

Gainerako eskeintzei 10 puntu eman zaizkie atal honetan.

### Ondorioa

Futbol zelaia birmoldatzeko lanen kontrataziorako prozedura negoziatua erregulatzen duen pleguaren arabera eskaintza guztiak baloratu ondoren honako hauek dira hiru eskeintzarik onenak:



ZIZURKILGO UDALA

1. URBYCOLAN (319.133,26 €).....58,85 puntu
2. ASASER (330.134,08 €).....57,90 puntu
3. AMENABAR (335.947,88 €).....57,15 puntu

Beraz, hiru eskaintza hauek pasa behar dute negoziazio fasera.

Negoiazio fasearen barruan, beren eskaintzak hobetzera gonbidatu behar dira epe bat emanaz honetarako.

Bestalde, mantentze programa zehatz bat aurkezteko eskatu behar litzaieke.

Zizurkilen, 2014ko abuztuaren 11n

Udal Arkitektoa  
Ainara Sagarna Aranburu



# PLIKAK IREKITZEA

orrialdea 1 - 1etik


OBRA: ZIZURKILGO FUTBOL ZELAAREN BIRMOLDAKETA PROIEKTUA

AURREKUTPOA: 380.032,33

EPEA: 10 aste

Aurkezpen data	29-jul-14
Trekitze data:	30-jul-14
Oferta Media:	329.262,23 €
Baja Media:	13,36%
Baja Desproporcionada:	23,36%
Importe Baja desproporcionada:	291.256,78 €

	Baja	Puntuación
Bmed -40	-26,64%	0,00
Bmed-8	5,36%	54,13
Bmed	13,36%	58,01
Bmed+5	18,36%	59,60
Bmax	27,27%	60,00



ENPRESA	Esk. Ekonomikoa	Baja	Puntuaketa	Besteak	Batura	Postua	Diferentzia
1 ASASER	330.134,08 €	13,13%	57,90	40,00	97,90	2	-0,96
2 MORGA	276.413,89 €	27,27%	60,00	30,00	90,00	4	-8,85
3 URBYCOLAN	319.133,26 €	16,02%	58,85	40,00	98,85	1	0,00
4 AMENABAR	335.947,88 €	11,60%	57,15	40,00	97,15	3	-1,70
5 ITALGREEN	280.000,00 €	26,32%	59,96	0,00	59,96	8	-38,90
6 MURLAS	344.500,00 €	9,35%	56,06	32,50	88,56	5	-10,29
7 CAMPEZO + OPSA	364.379,01 €	4,12%	52,03	10,00	62,03	7	-36,82
8 GOTTU	355.082,42 €	6,57%	54,72	20,00	74,72	6	-24,14
9 MONDO	357.769,53 €	5,86%	54,37	0,00	54,37	8	-44,48



ZIZURKILGO UDALA

## FUTBOL ZELAIAREN ERABERRITZE OBRETAKO LEHIAKETAKO NEGOZIAZIO FASEA

### Aurrekariak

2014ko uztailaren 10ean Zizurkilgo Udalbatzak Futbol Zelaia Eraberritzeko Proiektua gauzatzeko kontratu esleitzeko baldintzen plegua onartu zuen.

Plegu honen arabera, prozedura negoziatuaren bitartez esleituko da kontratua.

2014ko uztailaren 29an amaitu zen proposamenak aurkezteko epea eta 2014ko uztailaren 30ean ireki ziren plikak.

Guztira 9 proposamen jaso dira eta guztiak izan dira onartuak.

Baldintza pleguaren arabera proposamen guztiak baloratu ondoren (ikus 2014/08/11 datako txostena), hiru eskaintzarik onenak determinatu ziren:

1. URBYCOLAN (319.133,26 €).....58,85 puntu
2. ASASER (330.134,08 €).....57,90 puntu
3. AMENABAR (335.947,88 €).....57,15 puntu

Honela, hiru enpresei gonbidapena luzatu zitzaion beren eskaintzak hobetu ahal izateko eta hiru eguneko epea eman zaitzaion honetarako. Gainera, eskaintzaren barruan sartzen den mantentze lanen programa aurkezteko eskatu zitzaion, mantentze lanak eta periodikotasuna zehaztuz.

Epearen barruan hiru enpresek igorri dituzte beren proposamenak.

### Txostena

Ondoren laburbiltzen dira jasotako proposamenak:

#### AMENABAR

Lehenengo proposamen berbera mantentzen dute. Idatzi baten bitartez berme epearen inguruko argibide batzuk gehitu dituzte eta hiru hilabetetik behin eta urtean behin egingo lituzketen mantentze lanak zehaztu dituzte.



## ZIZURKILGO UDALA

### ASASER

Hobekuntza modura zenbait hiri altzari eskaini dituzte (zenbait banku, paperontzi etab.). Hobekuntza honek ez du inolako harremanik futbol zelaiarekin. Jatorrizko eskaintzan zehaztu zuten mantentze lanen programa.

### URBYCOLAN

Alde batetik eskaintza ekonomikoa berregin dute eta guztira 1.036,91 euro merketu dute eskaintza (1.254,66 BEZarekin).

Honela, azken eskaintza 318.096,35 €koa da. (384.896,58 € BEZ barne).

Beste alde batetik, belar mota zehatz bat eskaini dute (ITALGREEN-en 62 X TENDER PRO, proiektuan zehaztutako belarraren kualitate teknikoak hobetzen dituena.

Drainatze geruzan ere hobekuntza eskaini dute.

Mantentze lanei dagokienez, urtean behin egingo lituzketen mantentze lanak zehaztu dituzte. Lan hauek 12 urteko bermearen mantentzeari lotuta leudeke. Baina honetaz aparte, Udalarari traktore txiki bat eta eskuila bat eskaintzen dizkiote, kosturik gabe, Udalak bere kabuz futbol zelaia baldintzarik egokienetan edukitzeko aukera izan dezan.

### Ondorioa

Eskaintza ekonomikoari dagokionez, URBYCOLAN da hoberena.

Berme epeari dagokionez, guztiek eskaintzen dute 12 urteko berme epea.

Bermea indarrean izateko ezinbesteko mantentze lanak guztiek eskaini dituzte. Kasu honetan badaude alde txikiak egin beharreko lan zehatzak eta periodikotasunari dagokionez, baina diferentziak ez dira esanguratsuak.

URBYCOLAN-ek hobekuntza txiki bat proposatu du instalatu beharreko belarrean.

Guzti hau kontuan izanik, Zizurkilgo futbol zelaia eraberritzeko lanak URBYCOLAN enpresari esleitzea proposatzen dut.

Esleipenean kontuan izan beharko da hasierako eskaintza eta, baita ere, 2014/08/14 dataz aurkeztutako hobekuntza.

Honela, kontratuan espresuki agertu beharko duten ezaugarri nagusiak honakoak lirateke, laburbilduz:



## ZIZURKILGO UDALA

- Kontratuaren zenbatekoa 318.096,35 €koa izango da. (384.896,58 € BEZ barne).
- Eskaintzak jasotzen duen Kalitate kontrolerako programan sartutako prezio unitarioak kontratuaren zenbatekoaren barruan sartuta daude. (Ez dira modu gehigarrian abonatuko).
- Instalatuko den belarra ITALGREEN-en 62 X TENDER PRO izango da
- Obra amaitzean, inongo kosturik gabe " FIFA 2 izarreko Futbol Zelaia" ziurtagiria emango zaio Udalari. Udalak ez du ordainduko belar artifizialaren unitatea ziurtagiri hau aurkeztu arte.
  
- Berme epea: 12 urte
- Berme epearen barruan, urtean behin, kosturik gabe, egingo diren mantentze lanak:
  - Azalera osoaren garbiketa mekanikoa
  - Esuilaketa
  - betelanak egiaztatzea , beharrezko kasuetan materiala gehituz
  - betelanen gehiegizko trinkotzea konpondu
  - junturen egoera egiaztatu eta konpondu beharrezko kasuetan
  - tratamendu fitosanitarioak
  - ureztatze eta drainatze sarea egiaztatzea eta behar izanez gero ustubide eta aspertsoreak garbitzea
  
- Kosturik gabe Udalaren esku utziko da eskaintzan zehazten diren traktorea eta eskula.

Zizurkilen, 2014ko abuztuaren 14an

Udal Arkitektoa  
Ainara Sagarna Aranburu